

2015EKO UDAZKENA
31. ZENBAKIA

ELKARRIZKETA Roberto Uribeetxeberria

**“Nuestra Escuela Politécnica
es la primera en innovación
y desarrollo tecnológico”**





EROSKI

zurekin

Musakola auzoa 11
ARRASATE
943 71 10 30
www.grupoeroski.es



KM
kulturunea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

KOLDO MITXELENA Kulturunea

KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko *RealVideo* programa instalatu bezain pronto. Ikus: kmk.gipuzkoakultura.net



KOLDO MITXELENA Kulturuneako liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakegu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net

koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. kmk.gipuzkoakultura.net

Berrikuntzan eta garapen teknologikoan punta-puntan

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ezau-garri bereizgarriena da berrikuntza eta transferentzia. Enpresa arloarekin harremana estua da eta bide horretan ibilbide oparoa egin du Unibertsitateak. Etorkizunean ere gure ikertzaileek doktore tesiak enpresetan txertatuta egiten jarraitzea da asmo nagusia.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Modelo basado en proyectos

El pasado curso 2014-2015 el grado en comunicación audiovisual de la facultad de humanidades y ciencias de la educación de MONDRAGON UNIBERTSITATEA puso en marcha un nuevo plan para adaptarse mejor al perfil del alumno. Este curso el salto ha sido mayor y han desaparecido las asignaturas. A partir de ahora los alumnos y alumnas se formarán mediante un sistema de secuencias de trabajo continuado basado en competencias y resultados académicos.

muniversitas

(23. pk.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93
E-posta: info@mondragon.edu
Koordinatzailea: Arteman Komunikazioa
Erredakzio kontsellua:
Edurne Galindez, Goio Arana, Susana Azpilikueta, Idoia Elizalde,
Maria Angeles Inurritegi eta Idoia Peñakoba.
Laguntzaileak:
Tirada 5.500 ale | Lege gordailua SS-1360/05
Diseinua eta publizitatea: Arteman Komunikazioa
Argazkiak: Arteman Komunikazioa
Moldiztegia: MCC Graphics

HAMAR URTE, BESTE HORRENBESTE ASMO

guro dira hamar urte MUniversitas aldizkaria sortu genuenetik. Hamar urte emankor izan dira aldizkariarentzat, baina batez ere MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN datu objektiboek erakusten dute bilakaera, eta zenbakiak noski. Gaur egun, 15 gradu, 13 unibertsitate master eskaintzen ditugu eta 27 graduondo. Ikasle kopurua ere haziz doa eta dagoeneko 4.200 gaztek gure fakultateak aukeratu dituzte.

Asmoak ere asko dira, eta bete ditugun hamar urteak bezalaxe, hamarreko zerrenda egin dezakegu. Gure **gazteak entretenitu** nahi ditugu, **enpresa kolaboratzaileei** gure egunerokoaren berri eman, **transferentzia** sustatuz eta aldizkarian horren berri jasoz, Unibertsitateko **Bizitzaz** lerroak idatziz, **kirolaren garrantziaz** lerro-buruak azpimarratuz, **gure komunitateari** komunikatuz eta **gurasoei** agian ezagutzen ez duten errealitatearen berri emanez. **Ikerketa** arloak alde batera utzi gabe, ezta berezi egiten gaituen **esperientzia kooperatiboa** ere eta hori guztia era **erakargarriagoan** egiten jarraitu nahi dugu.

Hamar urte emankor izan dira aldizkariarentzat, baina batez ere MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN

Aldizkariak ere aurrera egin du, edukietan askotariko elkarrizketa, erreportaje eta albiste zein kolaborazio argitaratu ditugu, beti ere informazioaren zuzentasuna eta gardentasun irizpideak aintzat harturik. Orain, estiloa aldatu dugu, hamar urteren buruan pauso berri bat ematea erabaki dugu, baina gardentasunak eta informazioaren zuzentasunak gure irizpideak izaten jarraituko dute.

Irizpide nagusiek bizi-bizi jarraitzen dute hamar urteren buruan. Dekalogoak ez da aldatu eta estilo aldaketak ere ez du eraginik izango gure asmoen zerrendan. Aldaketak estiloan, edukiak aurkezteko moduan, argazkien tratamenduan... igarriko dituzue, baina funtsak berdina izaten jarraituko du. Unibertsitatearen aldizkaria izan nahi dugu eta zuekin guztiokin egitea da gure nahia. Horretarako bideak badaudela uste baitugu. Eskerrik asko irakurtzen gaituzuenoi, eta gainerako guztioi ere gonbitea luzatzen dizuegu. MUniversitas guztiona dela sentitzen baitugu.



MUниверситас, hamar urte

2005EKO URRIAN SORTU ZEN MUNIVERSITAS ALDIZKARIA. MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN HAZKUNTZAK BERAK BULTZATUTA, UNIBERTSITATEAREN MARKAREN HEDAPENEAN PAUSO GARRANTZITSUA EMAN ASMOZ.

XXI.mendean, 2015 urtean, paperaren garairik onenak aspaldi igaro ziren. Hedabideak kontsumitzeko ohiturak nabarmen aldatu dira eta iraultza izugarria bizi izan dugu, edo bizitzen ari gara. MONDRAGON UNIBERTSITATEak berak ere kanal ugari erabiltzen ditu gaur egun komunikaziorako; MUTELEBISTA, WEBGUNEA ETA BLOGA, SARE SOZIALAK... MUниверситас aldizkaria ere beste erreminta bat da, balekoa.

Hamar urte bete ditu aldizkariak, hamar urte emankor; 31 zenbaki, beste horrenbeste elkarrizketa nagusi eta erreportaje interesgarri. Ehunka albiste labur eta liburu gomendio. Unibertsitatearen bizitzaren gaineko albisteak, kirola, kultura, ikerketa, tesiak... Eta hamar urteren bueltan, MUниверситас berritua aurkezteko garaia iritsi da. Aldaketa ez da edonolako, eta berau egiteko, MUниверситасeko taldeak orain urtebete hasi zuen hausnarketa prozesua. Eskuetan duzuen da aldizkari berritua.

MUниверситас irakasle eta ikasleen artean banatzen jarraituko da eta, noski, oso inportantea da enpresetan egiten den banaketa. MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN balio bereizgarriena da eza-gutzaren transferentzia eta, horren haritik, ia 5.000 aleetako asko enpresetara hedatuko dira.

Diseinu aldaketa



Hausnarketa prozesuan edukiak, diseinua eta estiloa aztertu dira, baita aldizkariaren helburuak eta estilo editoriala ere. Edukietan aldaketa nabarmenena izenburuetan egongo da, eta baita albisteak aurkezteko moduan ere. Aipu gehiagorekin eta albiste barruko atalen sorkuntzarekin. Baina aldaketa nabarmenena portadakoa izango da. Ilustrazioak alde batera utzi eta protagonista baten argazkiarekin irekiko baitugu etorkizuneko MUниверситас.

En marcha los cursos MOOC

LA UNIVERSIDAD SE ESTRENA EN ESTA MODALIDAD CON LOS CURSOS 'HACKING ÉTICO' (SEGURIDAD INFORMÁTICA) Y 'CLAVES PARA LA GESTIÓN DE COOPERATIVAS. EXPERIENCIA MONDRAGON', ESTE ÚLTIMO EN CASTELLANO Y EUSKERA. EL ÉXITO DE PARTICIPACIÓN ANIMA A IMPULSAR NUEVOS CURSOS EN EL FUTURO.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA | Ofrece desde septiembre dos cursos online abiertos y masivos de carácter gratuito, tras sumarse al modelo MOOC (Massive Open Online Course). En concreto la universidad ha puesto en marcha estos dos cursos: 'Hacking ético' (Seguridad informática) donde han participado mas de 5.000 personas y 'Claves para la gestión de cooperativas. Experiencia MONDRAGON'. Este último lo ha ofrecido en castellano con la participación de más de 2.000 personas y lo está haciendo ahora en euskera, con 150 participantes. Además, la universidad utilizará la plataforma Open edX para impartir los cursos e impulsará la traducción de la misma al euskera.

Los MOOC son cursos gratuitos online abiertos a la participación masiva y en los que la interacción, la creación y la reflexión son pilares clave para construir conocimiento y aplicarlo en contextos

MONDRAGON UNIBERTSITATEA apuesta por esta nueva línea de formación en consonancia con sus valores sociales.

reales. MONDRAGON UNIBERTSITATEA apuesta por esta nueva línea de formación en consonancia con sus valores sociales.

MOOC es una modalidad de educación abierta, con cursos gratuitos a través de plataformas educativas en internet, y su filosofía es la liberación del conocimiento para que

llegue a un público amplio. Para que la enseñanza a distancia pueda ser considerada MOOC debe cumplir los siguientes requisitos: formato de curso y estructura orientada al aprendizaje –con pruebas o evaluaciones para acreditar el conocimiento adquirido-. También debe tener carácter masivo y las matriculaciones deben ser ilimitadas.

El alcance es global, ya que se ofrecen online y no hay ningún tipo de requisito previo, ni académico ni profesional. No requiere asistencia y los materiales son accesibles de forma gratuita en Internet.

MOOC vía plataforma EDX

Open EDX es una iniciativa en línea creada por los socios fundadores de Harvard y el MIT y compuesto por decenas de instituciones líderes mundiales. EDX ofrece cursos y MOOCs interactivos online en línea de las mejores universidades e instituciones de todo el mundo.

Los cursos de MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1. Claves para la gestión de cooperativas: Experiencia MONDRAGON. En euskera.

El temario de este curso abarca: la economía social y solidaria en el siglo XXI, la Experiencia Cooperativa de MONDRAGON, claves para una gestión eficiente y transformación social y educación. Este curso tiene como objetivo reflexionar sobre el fenómeno del cooperativismo y la economía social y solidaria, conocer la Experiencia Cooperativa de MONDRAGON, conocer algunas claves para la gestión eficiente de empresas y organizaciones de economía social y solidaria y reflexionar sobre la educación y el rol que juega en los procesos de transformación social.

2. Hacking ético (sobre seguridad informática).

El curso se desarrolló durante cuatro semanas a partir del 15 de septiembre y durante el mismo se estudiaron técnicas básicas y avanzadas sobre hacking, se analizó el valor que para la sociedad tienen los hackers y se desarrollaron actividades tanto de forma individual como grupal, estas últimas a través de un reto que permitieron a los participantes no solo aprender sino divertirse en un contexto de aprendizaje lúdico.

Talleres experimentales, proyectos de formación de alumnos de 3º grado

A PARTIR DE UN CONCEPTO, LOS ALUMNOS DESARROLLAN, PILOTADOS POR PROFESORES, PROYECTOS INTEGRALES DE RESTAURANTES POP UP.



Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas | Así describen los alumnos el taller experimental 'Arima Sutan': "Es un proyecto basado en la historia de las brujas de Zugarramurdi, una experiencia en la que el cliente va degustando la comida a través de una historia conceptualizada. La localidad de los productos de los platos, la manzana como hilo conductor por su simbolismo (maridaje), la recolección de ingredientes hecha por los alumnos, la coherencia en la construcción del menú en base a hechos históricos y creencias, las diferentes ambientaciones, el servicio teatralizado... Todos estos aspectos permiten adentrar por completo al cliente en el aura misteriosa que envolvía a aquellas sabias de la naturaleza".

Universitat de Vic-Central de Catalunya-ko ikertzaileekin elkarlanean

Humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea | Urriaren 23an, Universitat de Vic-Central de Catalunya-ko eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 25 ikertzaile Bilbao Berrikuntza Faktorian elkartu ziren. Hurrengo helburuak zituen III. Ikerketa Jardunaldiak: batetik, jorratzea hezkuntzako berrikuntza eta esku-hartzearen ikerketari buruzko gaiak; bestetik, ikertzaileen lanak ezagutaraztea eta, azkenik, esperientziak trukatzeko. Horretarako, egunean zehar, hainbat ekitaldi antolatuz zituzten, hala nola hitzaldiak, mintegiak, bilerak eta mahai-inguruak. Eskoriatzako fakultateak hezkuntzako doktorego-programa bat partekatzen du Kataluniako unibertsitatearekin.

Inaugurazioa aurten Enpresagintzan



2015-2016 IKASTURTEARI HASIERA EMATEKO EKITALDI OFIZIALA ENPRESAGINTZAREN OÑATIKO FAKULTATEAN EGIN ZEN IRAILAREN 17AN. BESTEAK BESTE, EUSKADIKO LEHENDAKARI IÑIGO URKULLUK, ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTORE VICENTE ATXAK PARTE HARTU ZUTEN EKITALDIAN.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburu Cristina Uriarte; Gipuzkoako Ahal-dun nagusi Markel Olano; eta Oñatiko, Arrasateko, Aretxabale-tako eta Eskoriatzako alkateek ere esku hartu zuten ekitaldian. MONDRAGON Korporazioko lehendakari Javier Sotil ere bertan izan zen, eta Unibertsitateko beste hainbat lagun.

Hasierako agurraren ondoren, Susana Azpilikueta, Unibertsitateko Komunikazio arduradunak, Idoia Peñakoba idazkari nagusiari eman zion hitza eta hark 2014-2015 ikasturteko memoria akademikoa aurkeztu zuen. Inaugurazio hitzaldia, berriz, Saioa Arandok egin zuen. 'Pertsonak kooperazioan' eza-gutza arloko koordinatzailea da Arando doktorea eta MIK era-kundeko koordinatzaile zientifikoa. Bere hitzaldiaren izenburua honako hau izan zen: "Ezagutzak askatasuna eskainiko digu eta lanak autoerrealizatzen lagunduko digu".

Naiara Arnaez,
tesi irakurketa

Tesia | Naiara Arnaezek bere tesia aurkeztu berri du honako izenburuarekin: 'Factores organizativos, individuales y del entorno con incidencia en la repatriación: evidencias empíricas para el caso español'. Deustuko Unibertsitateko Amaia Arizkuren Elea izan da tesiaren zuzendaria, Maria Eugenia Sanchez Vidal (UPCT) unibertsitateko ordezkariarekin batera.

Epaimahaiari dagokionez, Jaime Bonache Pérez (Universidad Carlos III), Marta Muñiz Ferrer (ICAD), Olga del Orden Olasagasti (Deustu), María del Mar Bornay Barrachina (Universidad Pablo de Olavide) eta Izaskun Agirren Aranburu (Enpresagintza MONDRAGON UNIBERTSITATEA) izan ziren.



Unibertsitate arteko kongresu kooperatiboa

Enpresagintza | Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuak aurkeztuta, Euskal Herriko unibertsitate arteko lehen kongresu kooperatiboa egin zen urriaren 15etik 16ra. *Eredu kooperatiboa egungo erronken aurrean* lemapean, EAEko hiru unibertsitateek hartu zuten parte kongresuaren antolaketan: Deustuko Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEA, hain zuzen ere, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki lankidetzaren ikertegiak eta Mondragon Ikerketa Kudeaketan (MIK) taldeak.

Hauexek izan ziren lan-saioetan jorratutako gaiak: gizarte eraldaketa eta parte hartzea MONDRAGON taldean, euskal kooperatibismoaren sustapena politika publikoetan, berrikuntza eta kooperatibismoa eta, azkenik, interkooperazio kooperatiboa nazioartean.



Ejemplo de buenas prácticas

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | MONDRAGON UNIBERTSITATEA es la primera universidad del Estado en implementar un acceso abierto del software MATLAB y Simulink de Mathworks que se adapta muy bien al modelo de aprendizaje que le diferencia.


Los estudiantes de ingeniería utilizan herramientas MATLAB y Simulink para analizar, modelar y simular los diferentes proyectos que deben resolver en equipo e implementar a lo largo de su titulación.

Tras las fases de análisis previos y utilizando estas herramientas los estudiantes conocen como se comportará el sistema antes de que lo implementen en el prototipo real que deben presentar. El manejo de estas herramientas es valorada de forma positiva por parte de la empresa.

Seminario de Keysight

Goi Eskola Politeknikoa | El 17 de noviembre se celebró el seminario de Keysight 'Tecnologías de Medida de Materiales: Caracterización Electromagnética y Medida de Impedancia' en el Polo de Innovación de Garaia.

En este seminario se exploraron varias tecnologías. Asimismo se abordaron técnicas que permiten caracterizar materiales muy dispares. Para ello, se utilizó instrumentación de medida electrónica.



Urtarrilaren 14an jarriko da abian Kirol-hezitzailea aditu titulu berria

IKASTARO ERDI-PRESENTZIALA IZANGO DA ETA ESKOLAK ASTEAN BEHIN IZANGO DIRA, OSTEGUN ARRATSALDETAN; GAINERA, HILEAN BEHIN, LARUNBATEAN, BESTE SAIO BAT IZANGO DA ARETXABALETAKO CAMPUSEAN.

Humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea |

Kirol-hezitzailea aditu titulua zuzenduta dago kirola tresna hezitzaile bezala ulertzen duten profesional eta ikasleei. Aditu tituluak metodologia dinami-ko eta parte-hartzailea izango du: batetik, irakasle adituek eskola teoriko-praktikoak emango dituzte. Bestetik, eskoletan landutakoa osatzeko, eskola-kirolean zein gorputz-hezkuntzan arituak eta adituak diren pertsonen eta taldeen ekarpenak izango dira,

Kirol-hezitzailea aditu titulua zuzenduta dago kirola tresna hezitzaile bezala ulertzen duten profesional eta ikasleei

samen eta proiektuen diseinua, garapena eta ebaluazioa egin ahal izango ditu. Gainera, kirol-hezitzaileak gauzatu ahal izango ditu erakunde edo talde batean aholkularitzarako jarduerak, betiere, erakunde txertatuz hezkuntza inklusi-boaren eta ikuspegi sozialen balioak.



Mundu osoko 50 hezkuntza fakultatetako ordezkariak gurean izan dira

MUNDU OSOKO HEZKUNTZA FAKULTATEETAKO 50 ORDEZKARI BILDU DIRA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEAK IRAILEKO LAU EGUNETAN ZEHAR ANTOLATUTAKO ETEN SAREKO TOPAKETAN. EUROPEAN TEACHER EDUCATION NETWORK SAREAK LANTZEN DU, BESTEAK BESTE, HEZKUNTZAKO IKASLEEN MUGIKORTASUNA ETA UNIBERTSITATEEN ARTEKO LANKIDETZA ILDO BERRIAK.

Humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea |

Pasa den irailaren 24tik 27ra bitartean European Teacher Education Network 2015 (ETEN) sareko 50 ordezkari bildu ziren Eskoriatzan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatutako topaketa honetan. Lau egunetan zehar, bertan bildutako ordezkariak hainbat lan bilera eta *workshop* egin zituzten ikasleen mugikortasunaren gaia jorratzeko asmoz. Izan ere, fakultateen arteko ikasleen joan-etorria indartzea izan zen topaketa- ren helburu nagusia. Horrez gain, topaketa baliatu zuten partaideen arteko harreman pertsonalak lantzeko.

ETEN (*European Teacher Education Network*) 1988an sortu zen. Batez ere, Europako hezkuntza fakultateak dira sare honen kide, guztira 21 herrialde- tako 60 erakunde. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK 2006tik hartzen du parte sarean.



Arranca CA! Incubadora 2015

Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas | Ha comenzado la segunda edición de CA! Incubadora, un proceso de incubación de proyectos en alimentación y gastronomía donde convertir las ideas en modelos de negocios rentables y sostenibles. HAZI y Heineken colaboran en CA! Incubadora.

Los 10 proyectos emprendedores seleccionados vienen de diferentes partes del Estado para desarrollar sus proyectos con el apoyo del equipo gestor y mentor de CA! Incubadora. 10 proyectos relacionados con el diseño de experiencias gastronómicas,

creación de productos, asesoramiento y formación en el sector alimentario y diseño y creación de eventos gastronómicos.

En un inicio han tenido la oportunidad de crear el primer punto de contacto entre los 15 emprendedores participantes en la Incubadora. Las relaciones personales y profesionales entre todos los emprendedores son esenciales para la transmisión de conocimientos y experiencias. Así mismo, se han presentado todos los proyectos y los presentes, tanto los mentores como los demás emprendedores han planteado cuestiones interesantes.

Taller Culinary Action, cita de los “agitadores” gastronómicos en Madrid

CULINARY ACTION! VUELVE A MADRID EL 23 DE NOVIEMBRE, COMO UN TALLER CENTRADO EN ANALIZAR LOS CASOS DE ÉXITO DE EMPRENDEDORES GASTRONÓMICOS, CONTADOS EN PRIMERA PERSONA POR LOS PROPIOS PROTAGONISTAS.

Culinary Action Madrid



Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas | A diferencia de otros talleres de Culinary Action, el objetivo no es solamente reunir cocineros, si no conocer diferentes perfiles de emprendedores urbanos que han demostrado su capacidad para montar negocios gastronómicos de éxito. De esta manera, se presentarán 9 casos de emprendedores de negocios, que actúan como agitadores gastronómicos en Madrid: han abierto conceptos innovadores en Madrid, a partir de un primer local han abierto otros espacios, basados en formatos diferentes y siempre a partir de la experiencia del primer proyecto. Bajo estas estrategias, contribuyen al cambio de la ciudad y de calles o barrios concretos, que modernizan su ‘lenguaje’ gastronómico gracias a ellos. En la práctica, funcionan como agitadores del ‘gastromercado’ madrileño y se alinean con el perfil de ‘urban food entrepreneurs’, a través de la apertura de negocios que contribuyen al cambio de una ciudad.

Junto a estos nueve casos emprendedores, Culinary Action! Madrid contará con una charla central dirigida a emprendedores, desarrollada por Sacha Hormaechea.

‘GASTRONETAS’ made in LEINN

Facultad de empresariales | Las *gastronetas* o *food trucks* están en pleno auge actualmente. De esta manera, entre el 29 de octubre al 1 de noviembre, la plaza Matxin de Mungia acogió el festival *Van sobre ruedas* en el cual se pudieron degustar tanto recetas de comida local así como de diferentes países. La iniciativa, organizada e impulsada por la empresa Tangram Bilbao, que está formada por jóvenes emprendedores de LEINN de Mondragon Team Academy, contó también con el apoyo del Ayuntamiento de Mungia.



60 cursos para profesionales, impartidos por profesores, expertos y chefs internacionales

EL PROGRAMA ABARCA TODAS LAS ÁREAS DE LA RESTAURACIÓN A TRAVÉS DE MÁSTERES, CURSOS DE ESPECIALIZACIÓN, CURSOS INTENSIVOS, SEMINARIOS Y DOS CONGRESOS, CON UN TOTAL DE 60 CURSOS. COCINEROS DE REFERENCIA INTERNACIONAL COMO MICHEL BRAS, PEDRO SUBIJANA, JOAN ROCA O ANDONI LUIS ADURIZ OFRECERÁN UNA MÁSTER CLASS.

Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas | Basque Culinary Center ha diseñado su oferta para profesionales durante este curso académico, una oferta consolidada que responde a las necesidades de todos los profesionales del sector de la restauración: cocineros, pasteleros, gestores, personal de sala y sumilleres, entre otros. Se trata de una oferta formativa integral, con 60 cursos que abarcan todas las áreas de la restauración a través de másteres, cursos de especialización, cursos intensivos y seminarios, que se complementan con dos congresos. Un completo abanico de cursos con el que los profesionales del sector podrán especializarse y completar su formación en un mercado en permanente evolución.

La oferta incluye cinco másteres, cuatro cursos de especialización, tres cursos intensivos, 49 seminarios y dos congresos.

La oferta incluye cinco másteres, cuatro cursos de especialización, tres cursos intensivos, 49 seminarios y dos congresos. De los cinco másteres dos son en cocina (uno para profesionales y otro para recién titulados), uno de cocina dulce, un máster en gestión de restaurantes, y el último en sumillería y enomarketing. Cuatro cursos de especialización: dos en el área de cocina, uno en el área de pastelería y otro en bartender y coctelería moderna. De hecho, esta es pionera en ofrecer la primera formación universitaria en coctelería. Tres cursos intensivos: dos de ellos están orientados a renovar e innovar en la oferta de tapas y pinchos, y el tercero está destinado a las técnicas culinarias de vanguardia.



“Esperamos conseguir financiación y plantear un proyecto definitivo que nos permita seguir trabajando desde México”.

Desde México a Oñati

SOPHÍA JHOSSLINE GUERRERO DE JESÚS Y VÍCTOR EMILIO RODRÍGUEZ VELASCO SON DOS DE LOS 23 JÓVENES QUE DURANTE ESTOS DÍAS ESTÁN DE VISITA EN EL CAMPUS DE ENPRESAGINTZA DE OÑATI. FORMAN PARTE DEL ITINERARIO QUE REALIZAN LOS LEINNERS POR EL MUNDO, PARA APRENDER DE OTRAS EXPERIENCIAS.

Con 18 años, dos proyectos empresariales emergentes, una actitud emprendedora y con ganas de aprender de la experiencia de los leinners de Euskadi han llegado los 23 alumnos de la universidad UCO Mondragón de Querétaro, la ciudad ubicada a unos 200 km al noroeste de Ciudad de México. Son alumnos y alumnas de la primera promoción de LEINN de toda Latinoamérica, y han formado ya las primeras dos empresas para costearse su estancia entre nosotros.

¿Cómo están viviendo su experiencia en Euskadi?

Sophía: Yo soy miembro del equipo-empresa Grupo empresarial 12 y queremos desarrollar un proyecto gastronómico, cultural e implementarlo en varios actos que estamos diseñando. Uno de ellos lo hicimos la noche de Halloween en un bar de Bergara. Celebramos el día de Muertos como se hace en México y aunque no perdimos dinero, tampoco hemos sacado todo lo que esperábamos. El objetivo económico es que cada uno de los equipos consiga cerca de 500 euros por persona. **Emilio:** Yo formo parte del Grupo Mantic (quiere decir hacer en maya). Lo cierto es que pensábamos que veníamos a un lugar grande y que aquí conocerían mucho nuestra cultura, pero no ha sido así. Y por lo tanto se nos abren nuevas oportunidades. Nuestro proyecto

empresarial está relacionado con la importación de productos, y estos días estamos realizando muchos contactos.

¿Los proyectos que están ejecutando tendrán seguimiento una vez finalice su estancia en Oñati?

Sophía: Esperamos conseguir financiación y plantear un proyecto definitivo que nos permita seguir trabajando desde México. Pero, de momento, queremos aprender todo lo que podamos en nuestra vivencia en el País Vasco. **Emilio:** Los siguientes días serán duros ya que nos planteamos proyectos económicamente viables. Estamos buscando proyectos concretos con varias empresas y ya hemos recibido algunas respuestas.

¿Qué es lo que más les ha sorprendido?

Sophía: Los vascos me han sorprendido mucho. Pensaba que la gente de aquí era muy seria, y todo mucho más gris, pero no es así. Es cierto que los mexicanos celebramos todo y aquí el respeto es mayor. Tenía otra perspectiva y ha cambiado mi manera de ver a los vascos. **Emilio:** Hay horarios establecidos para todo, en México no es así. Allí puedes salir a la calle y encontrar cualquier cosa a cualquier hora. Aquí hay más orden, más control, otro sentido del humor, es diferente.

Responsables de LEINN en Querétaro

Garazi Konde y Alma Velázquez son dos de los tres coaches de la Universidad UCO Mondragón Querétaro. Para ambas el principal objetivo de la visita de los 23 jóvenes es que adquieran la experiencia suficiente para ser los que se encarguen de difundir en el futuro la llama de LEINN en toda Latinoamérica. La universidad MONDRAGON - UCO (Querétaro) arrancó en febrero de este mismo año, “con la mirada puesta en formar un equipo-empresa que comenzara a trabajar, pero tal fue el éxito del trabajo de captación que realizamos que conseguimos reunir 23 jóvenes en dos equipos dispuestos a ser los primeros emprendedores LEINN de toda Latinoamérica”. Y el trabajo no está siendo

sencillo. “Querétaro es una de las ciudades más tradicionales de México, de dos millones de habitantes, y no esperábamos tanto éxito”, aseguran Alma y Garazi.

Aún siendo una ciudad conservadora, Querétaro cuenta con el mayor centro de innovación del país y es la segunda ciudad en la atracción de capital extranjero. “Buscamos formar jóvenes con una mirada global, y nuestra apuesta está resultando un éxito”. Dentro de la propia Universidad UCO, MONDRAGON TEAM ACADEMY (MTA) ha creado un ecosistema de emprendimiento, un laboratorio de LEINN donde conviven empresas y emprendedores. “En poco más de mes y medio estamos desarrollando



Garazi Konde.



Alma Velázquez.

proyectos con empresas”.

Respecto a la primera promoción de jóvenes, para Alma, “el reto es que esta promoción sea parte del proyecto para crear cultura. Ellos vienen aquí a aprender del modelo pero deben ser los que lleven la antorcha en Querétaro y en toda Latinoamérica. El segundo reto está más ligado al ecosistema, para que trabajen con proyectos”. Respecto a LEINN, debemos seguir trabajando la estrategia para

crecer en Latinoamérica.

Garazi forma parte de la primera promoción de Mondragón Team Academy, y desde entonces su trayectoria profesional ha estado muy ligada a LEINN y MONDRAGON UNIBERTSITATEA. Por su parte, Alma es completamente nueva en LEINN y en su filosofía. “Me interesa mucho aprender, y lo que quiero que se lleven los alumnos es el sentido de comunidad de MTA. Estoy convencida de que van a ser buenos pioneros de MTA en Latinoamérica, para generar un ecosistema de sinergias, responsable, en un país donde el 80% el empleo es de pequeñas y medianas empresas. El objetivo es que convivan, que adquieran confianza, que sepan quienes somos y por qué estamos haciendo las cosas así”.

Ikus-entzunezko gradu berritua

Proiektuetan egituratutako eredua

2014-2015 IKASTURTEAN HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK IKUS-ENTZUNEZKO GRADUAREN PLAN BERRIA EZARRI ZUEN LEHEN MAILAN, GAUR EGUNGO IKASLEEN PROFILERA HOBETO EGOKITZEKO. AURTEN JAUZI HANDIAGOA EGIN DA ETA IKASGAIK DESAGERTARAZIZ IKASKETA-EMAITZAK ETA KONPETENTZIAK JOMUGA DUTEN LAN-SEKUENTZIA JARRAITUEN BIDEZKO SISTEMA ESTREINATU DA.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua sortu zenetik izan du errealitatera eta sektoreko lan mundura ahalik eta gehien hurbiltzeko asmoa. Horregatik, joan den ikasturtea hasi aurretik Espainiako Kalifikazio eta Ebaluatze Agentziari graduaren errebisioa egiteko eskaera egin zion. “Denbora gutxian ikus-entzunezkoen alorra hainbeste aldatu denez, berrikuntza batzuk sartzea erabaki genuen”, azaldu du Andres Gostinek, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko koordinatzaileak. Hala, gradu horretako lehen mailan plan berria ezarri zuten, baina aldatuta handiak egin gabe: eredu zaharrekin jarraitu zuten kalifikatzerako orduan eta ikasgaiak indarrean izanik. Konpetentziak eta ikasketa-emaitzak kontuan hartzen hasi ziren, baina ikasgaiak ziren oinarria eta gradua ikasketetan lerrotua zegoen oraindik.

Egiten jakitea

Oraingo ikasturtean, baina, benetako jauzia egin da. “Horretarako MON-

DRAGON UNIBERTSITATEko Irakas-kuntza alorreko arduradun Eugenio Astigarragarengana jo genuen: berak gidatu gaitu gradu berritua diseinatzeko orduan”. Eredu berri honen funtsa hitz gutxitan azaldu digu Astigarragak: “Oinarria da ikasketa-emaitzetan zentratzea eta ez ikasgai ezta edukietan. Kontua ez da ikasi eta jakitea, baizik eta egiten jakitea, izaten jakitea eta egoten jakitea. Eta honek guztiak Mendeberriren izpiritua du, jakina”. Eugenio Astigarragak honako



Oinarria da ikasketa-emaitzetan zentratzea eta ez ikasgai ezta edukietan. Kontua ez da ikasi eta jakitea, baizik eta egiten jakitea, izaten jakitea eta egoten jakitea. Eta honek guztiak Mendeberriren izpiritua du, jakina.

hau gehitu du: “Gainera, ezinbesteko konfluentzia egon zen, hainbat lekutatik eskatzen ari da hezkuntzaren eraldaketa, naturala da mugimendu hori; eta gurean oso argi genuen aldatzeko beharra. Hortaz, erraza izan da irakasleok norabide berean gaudelako. Orain gakoa da ikasleek onartu behar dutela beraiek direla protagonista garatze prozesu honetan”. Astigarragak honakoa azpimarratu du: “Ezin ditugu eskolak eman orain dela 10 urte egiten genuen bezala. Derrigorrez egokitu behar dugu garai berrietara, eskakizun berrietara eta ikasleengaur egungo profilerara”.

Ikasketa-emaitzak helburu

Eredu berri honetan gakoa den ikasketa-emaitzak kontzeptua azaltzerakoan, garrantzitsua da nabarmentzea ikasleek gaitasunak erakutsi behar dituztela; eta hori frogatzeko gai izan behar direla hainbat gauza egiteko. Horretan datza, eta ez hain zuzen ere Eugenio Astigarragak literalki eta oso modu grafikoan azalduko orain arteko “jaso, jaso, jaso eta gero botatzearen sistema bulimiko zaharkitua”.

Ipar horrekin, aurtengo ekainean betiko ikasgaien sistema tradizionala hankaz gora jarri eta ikasketa-sistema irauliko zuen egitura diseinatzeari ekin zioten Astigarragarekin. “Irakasle guztiok argi genuen aldatu behar genuela. Horregatik, irakasle guztiak aritu gara denbora guztia bultzatzen”. Esan eta egin. Aurtengo ikasturtean eredu berria graduaren lehen eta bigarren mailan ezarri dute; eta ‘plan zaharreko’ bigarren eta hirugarren mailan bitarteko eredu bat ezarri dute erdibidekoa. Izan ere, iraultza handiena lehen bi mailatan ematen ari da.

Lan-sekuentziak, egin beharrekoak

Ikasketa-emaitzetan oinarrituta, lan-sekuentziak sortu eta diseinatu dituzte; hau da, ikasleei aurkezten zaizkie proiektu edo erronkak, eta horiei erantzuna ematen dihardute sekuentzia amaitu bitartean, era jarraituan. “Eta, jakina, lan-sekuentzia horien barruan sartzen ditugu klase magistral gutxi batzuk, mintegiak, tailerrak eta gainontzeko metodologia zein dinamika desberdinak”, argitu du Gostinek. Hala, Astigarragak ondo azaldu duen bezala, teoria maila txikiago batera pasa da eta lan-sekuentzia horien barruan txertatuko



2015-2016 ikasturtean jarri da indarrean eredu berria.



1. ETA 2. MAILAKO ikasleei eragiten die. Progresiboki 3. eta 4. mailatan ezarriko da.



94 IKASLE dira guztira, lehen eta bigarren maila batuta.



LAN-SEKUENTZIAK dira ardatza. Teoria proiektuetan txertatu eta horiek gauzatuta erakutsiko dute gaitasuna.



WORK IN PROGRESS

Eredu berria uneoro aztertu eta hobetzeko asmotan ikerketa martxan dute.



TALDE-LANA
indartu eta ikasleen
proaktibitatea bultzatzen
du eredu honek.

da; lan-sekuentzia garatzerakoan oinarri horrek bere lekutxo izango du. Hain zuzen ere, lan-sekuentzia bat telebista saioa egitea bada, horren baitan ikasiko dute telebistako programazioa, telebistaren hizkuntza, platoa erabiltzen, telebista antolatzen zein audientziaren garrantzia zein den. Baina ikasleek egitez ikasiko dute eta dakitena erakutsiko duena egingo duten telebista saioa da. Lan-sekuentziak jarraituak izango dira; hau da, hasi eta buka egingo dira, eta aurreko sekuentzia batean garatutakoak balioko du hurrengoko bati heldu ahal izateko; eta ezagutza zein gaitasunak erakutsi ahala, joango dira sinpleenetatik konplexuenetara.

Lehen mailan sekuentziak bideratuta egongo dira batez ere kazetaritzaren alorrera eta ikasturte horretan garatu beharreko proiektuen artean nabarmenak izango dira argazki erakusketa, aldizkari bat sortzea, multimedia erreportajea lantzea eta irratsaio bat egitea, guztiak ere proiektu errealei lotuta. Bigarren maila telebistara bideratuta egongo da, bereziki, eta bertan telebista rallya eta informaziozko zein entretenimenduzko saioak egin beharko dituzte. Hirugarrenean, esaterako, dokumentala eta film laburra izango dira aipagarrienak. Eta laugarrenean ikus-entzunezko eremu osoa bere gain hartuko duen berrikuntza proiektua garatzea. Horrez gain, laugarren mailako bigarren erdian gradu bukaerako lana ere gauzatu beharko dute; enpresa, erakunde edo elkarte baten premiari erantzungo diona.

Egitura aldaketa

Orain arte irakasle bakoitzak bere ikasgaia edo ikasgaiak ematen zituen eta hor atomizatu egiten zen guztia. Plan berri honekin, baina, atomizazio hori hausten ahalegingo dira, eta garatu beharreko konpetentziak lan-sekuentzian ordenatzen. “Sistema berri honek duen beste onura bat da sasoi bakoitzean proiektua bukatu artean ikasleak daudela gauza bakarrera bai ordu presentzial zein ez-presentzialean. Eta horrekin lehen ematen zen dispersioa ekidin dugu”, kontatu du Gostinek.

Lan-sekuentzien arabera funtzionatzen hasi denetik irakasleen zereginak ere aldaketa jasan du. “Orain arte irakasleok guri dagokigun ikasgaiak



LAN-SEKUENTZIA
JARRAITUAK
banan-banan egingo dituzte,
une bakoitzean denbora eta
indar guztia horri emanaz.



Lan-sekuentziak jarraituak izango dira; hau da, hasi eta buka egingo dira, eta aurreko sekuentzia batean garatutakoak balioko du hurrengoko bati heldu ahal izateko; eta ezagutza zein gaitasunak erakutsi ahala, joango dira sinpleenetatik konplexuenetara.

prestatu ohi ditugu, era indibidualean, nahiz eta tarteka berrikuntzak gehitu. Baina honek eskatzen digu ahalegin gehigarri bat: zentratu behar gara lan-sekuentzian eta garatu beharrekoa hor txertatzen jakin”. Hala, orain sekuentzia bakoitzean bi edo hiru irakasle parte har dezakete eta, tarteka, beraien ezagutza esparrutik ekarpenak egiteko beste batzuek ere gehitzea. Eugenio Astigarragak ezinbestekotzat du hori: “Beste mota bateko ikaste-guneak irudikatu behar ditugu, irakasle bat baino gehiago dituztenak eta, baita ere, irakaslerik gabekoak. Hurrengo pausoa gela kontzeptua haustea da”.

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan Aretxabaletako eta Eskoriatzako campusetako irakasleek hartzen dute parte, baina baita ere lan mundu profesionaletik ekarritako kolaboratzaileak: Iban Garate produkzioan, Eneko Olasagasti film laburretan, Arteman Komunikazioak publizitatearen esparruan, hanka bat arlo akademikoan eta beste bat

zineman duen Aitor Arregi... “Hortaz, hauek ere sekuentzia bakoitzaren helburuari begira jarri eta integratu ditugu”.

Ikerketa lana martxan

Bestalde, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN baitan oso ohikoa den bezala, plan berriaren gaineko ikerketajarri dute martxan, Berrikuntza eta hezkuntza esku hartzearen alorreko Maite Garcia gidatzen ari dena. Ikerketa kurso osoan zehar gauzatuko da, diseinu mistoa dauka (alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak kontutan hartuz) eta Ikus-entzunezko Komunikazio 1. eta 2. mailako ikasleak zein irakasleak dira protagonistak. “Helburua da ikerketa honen bidez etengabe ikastea zer gauza ateratzen diren ondo eta zeintzuek, work in progress aritzea”, azaldu du Gostinek. Horrekin batera, ikasleei etengabe feed-back-a eskatzeko erremintak diseinatu dituzte, eta graduko mahaira gonbidatuko dituzte bere iritzia emateko.

KANPOKO BEGIRADA EZINBESTEKOA DA BARRUKOA BIZIBERRITZEKO

Begoña Pedrosa. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa.



Hezkuntzan erreferente izan nahi badugu, ezinbestekoa da gure ikasle, irakasle eta ikerlariak mundura begira jartzea. Azken urteotan, mugikortasunaren inpaktua nabarmena izan da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko eskaintzetan; unibertsitateak makina bat hitzarmen sinatu ditu Europako zein kanpoko beste unibertsitate eta hezkuntza erakundeekin ikasleen mugikortasun prozesuak bermatzeko.

Irailean izan ditugu gure artean ETEN sareko kideak. ETEN sareak (European Teacher Education Network) 2007 urtean onartu zuen bere baitan MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. ETEN 1988an sortu zen Danimarkan, eta bere helburu nagusiak dira ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana eta mugikortasuna bultzatzea eta ikerkuntzan elkarlana sustatzea. Bertatik bideratu dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak egun dituen alde biko akordio asko, eta sare honetan egoteak egonkortasuna ematen du bitariko akordio berriak sinatzeko eta ditugunei eusteko. Adibidez, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hitzarmenak sinatuta ditu Europako 57 unibertsitateekin Erasmus+ egonaldiak gauzatu ahal izateko. Itun horiei esker, fakultateetako ikasleek aukera dute, besteak beste, ondorengo herrialdeetara joateko: Belgika, Danimarka, Suedia, Finlandia, Herbehereak, Estonia, Alemania, Hungaria, Grezia edo Turkia.

ETEN sarean egoteak eskaintzen dizkigun aukeren artean hurrengoak nabarmenduko nituzke: partaide garen sareetan hezkuntza proiektuen, berrikuntzen eta ikerketaren berri

jasotzea eta ezagutzea; horrez gain, gure gradu eta masterretako ikasleei aukerak irekitzea munduan zehar praktikak eta egonaldi akademikoak egin ahal izateko. Zertarako? Batetik, ikasleak oso gogotsu daudelako beste kultura eta esperientzia batzuetara hurbiltzeko; eta, bestetik, unibertsitate moduan, nazioartekotzeko esperientziak beste kompetentzia profesional eta pertsonal batzuk garatzen lagunduko diela sinesten dugulako. Irakasleentzako ere aukerak irekitzen dira, beste Fakultate eta curriculum batzuk bertatik bertara ezagutzeko.

Gure praktika lokalak eta politika propioak hartzen ditugu abiapuntu bezala. Eta, **nazioartekotzaren helburua da, hain zuzen, bertatik eskaintzen denari osagarritasuna ematea eta gure**

Helburu nagusiak dira ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana eta mugikortasuna bultzatzea eta ikerkuntzan elkarlana sustatzea.

dimentsio lokala hedatzea, nazioartekotzearen baitan sartu behar baitira bertako testuinguru kultural eta akademikoa. Esate baterako, 2008-2009 ikasturteetik aurrera Education and Minority Languages programa eskaintzen zaie Erasmus hezkuntzako ikasleei. Hemen ere, ikasleek aukera dute Haur eta Lehen Hezkuntzako eskoletan praktikaldi bat egiteko. Ikastaroak antolatzen ditugu

Ipar Europako herrialdeek (Norvegia, Danimarka, Finlandia eta Holanda) ezarritako ereduari jarraituz, hedapen txikiko hizkuntzak izanik, ingelesa aukeratu baitute nazioarteko ikasleak erakartzeko.

Errealitate bat da Bolognako prozesuak "eraman" gaituela mugikortasuna bultzatzera, baina egin dezagun ariketa zorrotzagoa, eta ohartuko gara mugikortasunaren onurak asko direla: gure ikasle zein irakasleengan aniztasunaren kontzientzia areagotzea; kulturarteko kompetentziak garatzea eta gure trebetasun komunikatiboak hobetzea, besteak beste. Gehiago esango nuke, izaki demokratikoak eta irekiagoak izaten laguntzen digun prozesua ere bada.

Nazioartekotza, hala ere, guztion lana da eta ez bakarrik nazioarteko talde edo batzordearena. Denon artean eraiki beharreko lehentasuna da: administrazioko zein idazkaritzako langileak, akademiko lan-taldeak zain ikerketa taldeak... Gure ikerlarien begirada funtsezkoa da, bai praktika onak identifikatzeko eta proiektu zein sare esanguratsuak detektatzeko, eta haiei jarraipena egiteko.

Humanitate eta hezkuntza zientzien fakultateak mundura begira egon nahi du, gure hezkuntza proiektuak euskalduna eta kooperatiboa izateaz gain, erreferentea izan nahi du munduan eta, horretarako, ezinbestekoa da munduko beste hezkuntza erakunde zein eragileekin konektatuta egotea; praktikarik berritzaileenak identifikatzea eta ezagutzea... Hori baita bidea gure proiektua ezagutzeko eta indartzeko.

“Nuestra Escuela Politécnica es la primera en innovación y desarrollo tecnológico”

Roberto Uribeetxeberria

Coordinador de Investigación y Transferencia en la Escuela Politécnica Superior de MONDRAGON UNIBERTSITATEA

A DOS MESES PARA CUMPLIR SU PRIMER AÑO AL FRENTE DEL DEPARTAMENTO DE INVESTIGACIÓN Y TRANSFERENCIA DE LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR, ROBERTO URIBEEETXEBERRIA HA REPASADO PARA MUNIVERSITAS LOS HITOS MÁS IMPORTANTES Y LOS RETOS DE FUTURO DEL DEPARTAMENTO QUE COORDINA.

¿Cómo ha evolucionado la investigación en MONDRAGON UNIBERTSITATEA? Cuando sólo éramos una Escuela Politécnica, no existía demasiada tradición en investigación básica. Con la creación de MONDRAGON UNIBERTSITATEA en 1997 necesitábamos dar ese salto, y junto con los primeros doctorados, se fomentó una cultura investigadora dotada de una personalidad propia, todo ello sobre una estructura organizativa que le daba soporte.

Y desde entonces el crecimiento en el ámbito ha sido exponencial. En los últimos años hemos crecido mucho, no sólo en resultados científicos (publicaciones, tesis doctorales...) sino también en ingresos. Incluso en plena crisis mantenemos la actividad gracias a las empresas que han apostado por nosotros financiando más de la mitad de nuestra investigación.

¿Cómo diferencia su departamento los ámbitos de investigación y de transferencia? ¿O es todo uno? Aunque en la Escuela Politécnica no se concibe el uno sin el otro, distinguimos dos ámbitos de trabajo: por un lado la investigación y por otro, la transferencia del conocimiento. La investigación principalmente está financiada por la administración pública que en sus convocatorias concede ayudas en régimen de concurrencia competitiva. La competencia es muy alta, con ratios de éxito inferiores al 10% en el caso de los proyectos europeos. Estas ayudas nos permiten investigar en áreas de mayor riesgo y capacitar a nuestros investigadores en ámbitos que a futuro demandará la industria. Por otro lado está la transferencia de conocimiento, con la que nuestra investigación aterriza en la industria. Son proyectos bajo contrato con empresas, para lograr resultados más cortoplacistas y cercanos al mercado, al producto final.

¿Se mueve bien MONDRAGON UNIVERSITATEA a nivel Estatal y Europeo? Históricamente hemos preferido las convocatorias vascas y estatales, porque conocíamos mejor los instrumentos y no nos daban tanto vértigo como la europeas. Pero podemos decir que ya le hemos perdido el miedo a Europa y en 2015 hemos logrado once proyectos europeos por valor de unos cuatro millones de euros a tres años. Son unos resultados sin precedentes para nosotros.

